



11. AZTERKETARIA (NESKA)

AZALPENA:

Ez da gai egokitu zaion testuaren gaineko informazio nagusia emateko. Oso motz geratu da azalpenean. Ematen duen informazioa txukun azaltzen du, zuzentasunez, baina ez da gai gaia garatzeko. 1'40"tan geratzen da, aztertzaileak denbora gogorarazten dio, eta aurrera egiten du nola edo hala.

“Eee... bueno... eee...” esandakoa errepikatzen hasten da, baina eten ugariarekin eta ezinean ari da. Aztertzaileak pistak ematen dizkio hainbat helduleku proposatuta, baina ez da gai jarraitzeko. Guztira 2 minutu eta 40 segundoko jarduna da. Beraz, ez ditu 3 minutu betetzen eta Jardunbidearen 83. orrialdeko parametroen arabera 7-9 bitartekoa da kalifikazioa.

Jario naturala dauka, baina hortik aurrera ezinean dabil.

Puntuazioa: 6

ELKARRERAGINA:

Zenbaitetan motel samar eta esaldi oso laburrekin aritu bada ere, gai izan da egokitu zaion tesia defendatzeko. Solaskidearen hitzak aintzat hartu ditu hari erantzun eta diskurtsoa antolatzeko.

Adierazi nahi duena nahiko zuzen eta lexiko egokia erabilia adierazten du. Nahiko diskurtso laua eta motela eraiki du.

Jario naturala du eta erraz ulertzen zaio.

Idea falta izan dute eta aztertzailearen laguntza behar izan dute denbora betetzeko. Hark egindako galderari erantzutean, ondo moldatu da.

Puntuazioa: 10

Elkarreraginean egindako lanak ez du azalpenekoan falta duena konpentsatzen.



12. AZTERKETARIA (MUTILA)

AZALPENA:

Arazo nabarmenak edukia modu kohesionatuan eta koherentean kontatzeko. Ideien hurrenkeran hutsune nabarmenak, batez ere makulu-hitzak etengabe erabiltzen dituelako (osea... osea... eee... osea... ba... ba... eee...). Diskurtso etena egiten du.

Zehaztasun eta azalpenen kalitate falta nabarmena.

Akats ugari egiten ditu, batez ere aditzaren erabileran (aspektua), syntaxian ("ere"ren erabilera, kasurako) eta deklinabide ergatiboaren erabileran.

Puntuazioa: 7

ELKARRERAGINA:

Sarrera oso luzea egiten du. Kosta egiten zaio egokitutako ikuspuntua garatzea. Argudio oso pobreak, ideiak behin eta berriro errepikatzen ditu. Adierazi nahi duena adierazteko zailtasun nabariak ditu. Azalpenaren kasuan aipatutako berbera: makulu-hitzak etengabe erabiltzen ditu, eta kasu honetan, agian, sarriago eta gehiago.

Akats ugari egiten du. Ez da esaldi luzerik osatzeko gai izan.

Diskurtsoa etena da, jario motelekoa.

Aztertzaileak parte hartu behar izan du azterketari biei laguntzeko. Hala ere, dagokigun honetan, zailtasun berberekin jarraitu du eta motela eta eskasa izan da bere jarduna.

Puntuazioa: 7

C1 mailaren langatik oso azpitik dago.